

# DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 238. zkia. 2015eko urria



*...eta ibili Ermuan!*





# LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



**ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA**

**ETENGABEKO ORDUTEGIA**



Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.**  
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfonso X.a Unibertsitatea, Madril.**  
Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.**  
Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua. **Autran Institutua, Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**



Astelehenetik ostiralera:  
**8:00**etatik **22:00**etara

Zapuetetan:  
**10:00**etatik **14:00** etara

**Eibarko Dendarien Elkarte**  
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ  
**Galdetuiguazu!**



**MUTUAK ETA ASEGUURUAK**

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...  
**Galdetuiguazu!**



**IRAZABAL**

clínica dental

**FINANTZIAZIO BEREZIA**

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

**ARGITARATZAILEA:**Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.**HELBIDEA:**Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.org**ERREDAKZIO TALDEA:**Alazne Aiestaran,  
Paul Bustindui,  
Dorleta Vidal,  
Estibalitz González  
eta Ekhi Velar.**KOORDINAZIOA  
ETA MAKETAZIOA:**

Ekhi Velar.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Estibalitz González

**LAGUNTZAILEAK:**Antonio Hernández 'Cuco',  
Patxi López,  
Pello Mugarza,  
Valentín Mugarza,  
Edprta Unamuno  
eta Jabí Vidal.**ARGAZKIAK:**Pispilu Abesbatza,  
Anaitasuna ikastola,  
Paul Bustindui,  
Dorleta Vidal,  
Estibalitz González,  
Valentín Mugarza,  
eta Ekhi Velar.**PUBLIZITATEA:**943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**Ainitze Antxia, Nora Mateos  
eta Olatz Vidal.**TIRADA:**

2.425 ale.

**ISSN:**

1133-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du  
bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*


# Bertoko ugaztunak

*...Gure baserritarren ahotik*

## **BASURDEA** jabali *Sus scrofa*

Gau beltzaren isiltasunean zein egunaren lehen printzeekin aritzen da, jatekoa jiratzeari helburu. Orojalea izanik, berdin konformatzen da fruta edo ortuariekin zein parean jarritako narrasti, txoritxo edo karraskariren batekin. Usaimenak ez dio kale egiten eta, esaten dutenez, patata bariatateak desberdintzen daki, gustukoena aukeratzuz; sagastietan ere begia beti sagarrik ederrenari botatzen dio ere.

Jatekoa bilatzeko, trebea da lurra goldtzen, muturra aitzur legez erabiliz: ezagun-ezagun izaten dute ortuek eta landek bere bisita jasan dutela denak zuloz beteta eta harrotuta esnatzen direnean. Itxura lodikotekoa, izter eder eta hanka motz samarrekin, baina paraje zabalean arina da. Ez du pertsona erasotzen, zaurituta edo setiatuta egon ezik. Basurde emea kumez inguratuta? Bere aldratxo babes-tuko duela-eta, norberak ospa!



## Hilabete honetan...

MUNDUKO AHOTSAK....4 José Manuel Belén (Dominikar Errepublika)	BOTEPRONTOAN.....16- lanire Daaira
ELKARRIZKETA .....5-7 Elisabeth Sarriguarte, Pispilu Abesbatzako zuzendaria	ESKOLEN TXOKOA .....17- Anaitasuna ikastolako berriak
MALLABIAN ZER? .....8-9 Urriko jaixek	IRITZIA .....18 "Hasierak!"
ERREPORTAJEA.....10 Ermuko basarrixak	SALEROSKETAK .....19 Saldu, erosi edo agurtu
SAN MARTIN AZOKA 11-13 Egitaraua / San Martin Kulturala	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
MOTZEAN.....14-15 Emakumeen Mundu Martxa	KALEKO INKESTA .....21 Zein da zure plana San Martin Azokari begira?
	AGENDA .....22 Azaroko agenda

### Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

MALLABIKO UDALA

Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de BizkaiaEUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCOHEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaDEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

# José Manuel Belén

Euskaltegian harrapatu dugu Jesús Manuel Belen Falilou Diop ikaskidearekin batera. Dominikar Errepublikako 27 urteko mutil hau orain dela hilabete etorri da Mallabira bere herrialdea utzi ostean. Zergatik? Emaztea mallabitarra delako. Maitasunak ekarri du karibearra Euskal Herrira eta orain pasio berarekin dihardu euskara ikasten.

**- Nolakoa zen zure bizitza Dominikar Errepublikan?**

Ona, polita. Hona etorri baino lehen lan egiteari utzi nion hona etortzeko asmoa nuelako, baina aurretik lanean ibili izan nintzen. Nire bi semeak nirekin nituen eta gustura bizi nintzen, pozik. Han lagunak nituen eta asteburuetan eurekin irteten nintzen, beraz, ondo bizi nintzela esan dezaket.

**-Zergatik erabaki zenuen Mallabira etortzea?**

Nire emaztea, Eneritz, Mallabian bizi delako. Bera irakaslea da. Bost urte daramatzagu elkarrekin eta orain Mallabian elkarrekin bizitzea erabaki dugu.

**-Alde handia dago Dominikar Errepublika eta Mallabiaren artean?**



Bai, lurretik zerura bezalakoa! (Barre egiten du). Hemen hotz pixka bat egiten du eta baita euria ere. Han, ordea, klima nahiko beroa daukagu. Hala ere, toki biek dute euren puntu ona.

**-Bizimoduan ere alde igarri duzu?**

Alde batetik, bai, baina bestetik ez. Hau da, hemen jendea asko irteren da kalera, tabernetara doa, festa gustatzen zaio, nahiko alai da... Dominikar Errepublikan bezala. Hemengo jendea, ordea, hangoa baino lagunkoiagoa da, atsegina. Hori da, behintzat, nik ikusi dudana hemendik zehar nabilen denbora txiki honetan. Baten batek zu ezagutzen ez bazaitu ere hurbiltzen zaizu, bera egiten dizu... euren bizitzan tokia egiten dizu. Han pertsonak ezberdi-

nak dira.

**-Zer da Euskal Herritik gehien gustatu zaizuna?**

Jendea, oso jatorrak direlako. Tokia ere ez dago batere txarto, polita da.

**-Eta gutxien?**

Gehiegi erretzen dela! Hori da ikusten dudana arazo bakarra.

**-Zer moduz moldatzen zara euskarekin?**

Oso ondo! Euskara ikasten dihardut eta orain arte ez nekizkien gauzak ezagutzen. Gogotsu nabil euskara ikasten, izan ere, garrantzitsua iruditzen zait hemen euskaraz egitea. Pare bat aste daramatzat euskaltegian, baina oso gustura nabil egia esan.

Ekhi Velar

**SAN ANTONIO** OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63  
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

**AIZ**

**AIZ**  
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**ZABAL**

**ERMUA**

**IKASTOLA**  
1968tik Ermua euskalduntzen



Elisabeth Sarriugarte, Pisillu Abesbatzeko zuzendaria:

## “Gustura nago eta koroan jarraitzen dut giro ona dagoelako”

25 urteko ibilbidea bete dute. Hastapen haietan elkarrizketatu genituen eta hauxe euren erantzuna kantatzearen zergatiaz galdetu genienean: “Betidanik gustatu zaigulako eta ondo sentitzen garelako. Astean behin etortzea ez da inongo sakrifizioa. Gutariko askorentzat terapia itzela da: eguneroko ardurak utzi, beste andra batzurekin egon, barre egin... Urte askotan jarraitzekotan gaude, gure errepertorioa sendotuz eta luzatuz”. Gizonak gehitu zitzaizkien bidean eta orduko horretan dihardute.

- 25 urte eta atzo zelakotan...

Elisabeth Sarriugarte. Bai, 1990 urtean egin zen jendaurreko lehen agerpena, nahiz eta entsaioekin lehenagotik hasita egon. Gizonen Abeslariak koroko zuzendaria zen Luis Mari Izagirrek sortu zuen; ahots zurien, andrazkoen koro bat egotea nahi zuen eta kantuzale jendea bilatzen hasi zen. Zoritxarrez Luis Mari 94ko Gabonetan zendu zen eta urtarrilean nik hartu nuen zuzendaritza. Nere burua formatu behar izan nuen, tresna aproposak izateko, ze partitura bat interpretatzen jakiteak ez du esan nahi zuzentzen dakizunik, ezta hurrik ere! Eta hor nago 20 urteren buruan.

- **Gustura zaude? Horrelako konpromiso bati eusteko...**

Bai, gustura nago eta kroan jarraitzen dut giro ona dagoelako. Ondo abestu arren, ezin izango nintzen egon elkarren arteko tirabirak dauden talde baten edo beti protagonistak izan nahi duten pertsonekin.

- **Noiz ematen da salto ahots mistoetara?**

1999an, abeslarietako kide batzuk Pispillura datozenean. Helduen abesbatza bat izan arren ere, bere aldiak ditu eta une honetan deskonpentsatuta dago: gi-



zonak falta dira eta hemendik deialdi bat luzatzen diet kantuzaleak diren gizonezko guztiei, dakigun arren kosta egiten zaiela entsaioetara erregulartasunez etortzeko konpromiso hori hartzea. 38 lagun gara; orain dela gutxira arte andrazko gutxiago izan direnez, orekatuago zegoen.

- **Gizonak eskatzen dituzue. Zer suposatuko zien aipatutako konpromiso horrek?**

Astean biko entsaioetara etortzea astelehen eta asteazkenetan, 21.15etatik 20.30etara. Gauza da belarria egiten joatea, haria hartzen den neurrian ahal dela abestea, apurka-apurka sartzen joatea. Une go-

gorra da, baina horrela behar duela izan onartzen denez, berriek jarraitu egiten dute orokorrean. Jendeak lotura eta konpromiso ikaragarria du koroarekiko; pentsa, hasierako urteetako jende mordotxo gaude oraindik!

- **Ze errepertorio mota du gaur eguneko Pispilluk?**

Bariatua: musika erlijiosotik, euskal eta gaztelar musika herrikoira, habanera, espiritual beltz eta pop melodiak ahazteke. Ahaleginez klasikoa gaur egungo estiloekin konbinatzen da.

- **Jendaurrearengana iritsi ez den kanturik presatu duzue noizbait?**

Bai. Estreinatuta eta zozergatik agian ez digu enkajatu: bertsoia ez zelako onena, ahotsengan konfidatu eta alde agudoegiak dituelako ez delako behar bezala entzuten, edo baita protagonismoa gizonen eman eta andrak gehiago

izatean estali egiten dituztelako. Gertatu izan zaigu partituraren zailtasunagatik denbora gehiago eskatu izan digula kanturen baten eta jendea errepikatzeaz nekatzen dela ikusten duzunean, hobe da esatea: "Hau, kanpora!". Bestalde, abesbatzaren hit parade-ak daude, abestu bai eta beti gustura hartzen ditugunak.

- **"Zuzendari ona da". Zer esan nahi du esaldi horrek?**

Zuzendari ona izatea oso gatxa da. Alde batetik, ezinbestekoa duzu teknika bokalean formatzea; bestetik, gorputzarekin argi espresatzen ere jakin behar duzu, abesbatzaren energia guztia ateratzen jakiteko, eta baita abeslariak ulertu eragiteko ze bolumen edo ze izaera nahi diozun eman melodiari. Bai, oso konplexua da. Gurea bezalako koro amateur baten ahots bakoitzari banatuta erakusten

**"Gizonak falta dira eta hemendik deialdia luzatzen diet"**





**ZERMIK**  
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA  
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS  
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT



ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

 [www.zermik.com](http://www.zermik.com)  
Usaetxe plaza 6-8, behea  
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)  
Telf: 943 23 10 12

diegu kantua, belarriz ikasiz eta zuzenketa puruan; gerora dator taldean abestearena, ahots batzuk besteak ez menderatzearena, musikari espresioa ematearena...

**- Kritikoa zara? Zorrotza?**

Oso kritikoa naiz, bai, baina pazientzia handia daukat ere. Kontutan izan hau guztiau errepikapen hutsaren poderioz ikasten dela, melodia behin eta berriaz afinatuz, ahots guztien enpastean saiatuz...eta horrek asko eskatzen die abeslariari.

**- Sasoi baten abesbatza kontuetan boom moduko bat eman zen Ermuan, bere onenean Pispillu, Abeslariak eta Alboka.**

**Faltan botatzen duzue?**

Albokaren desagerpena, 70 ume izatera iritsi zena, galera itzela izan zen: ez zen erreleborik egon, bolara kontua ere badelako. Gaur egun abesteaz interesatutako ume gutxi daude eta afizio hau gauza klasiko eta seriotzat hartzen da beti, diziplina handia demandatzen duela-eta. Baina edozein lan musikal zein bestelako ekintzak bere diziplina mota dakar: futbolearen ere, entrenamenduetara joan beharra dago asteburuetan partidua jokatu ahal izateko.

**- Jende askok uste du ez dakiela abesten...**

Azkenean abestea beste-

## “Jendeak lotura eta konpromiso ikaragarria du koroarekiko”

en aurrean zure ahotsa ateratzea da. Mundu guztia ez da ausartzen, jendaurrean berba egitea bezalakoa da. Abesten denok dakigu, ahotsa dugulako, grabeagoa edo agudoagoa, eta mundu guztia onartzen da. Bestalde, zaila da belarri musika ez izatea, tonuan kantatzen ez jakitea; hobeto edo eskasago, edozeinek egin dezake. Egia da ikasketa musikalekin belarri hori

hezten ikasten dela.

**- Zuen artera norbait etortzera animatu behar-ko bazenu, nola egingo zenuke?**

“Giro onean kantatzea gustatzen bazaizu, Pispillu gertu daukazu”. Irudi serio bat ematen dugu, trajea-terta ateratzen garelako eta abar, baina gure artean oso giro polita dugu.

**- Eskuaratean proiekturik?**

Ate joka Sa. Zeziliako kontzertua dugu, berezixtoagoa izango dena, ez lar apartekoa, baina koroaren historiaren oroigarri egitea nahi duguna. Martxoan Ermuan ospatuko den Txistulari Egunean hartuko dugu parte eta maiatzean Anoetan, Donostia 2016aren programazioaren barruan egingo den Abesbatzen Nazioarteko topaketan ere egongo gara. Bestalde, gure kontzertu mitikoekin jarraitzen dugu: Udaberri, Begoña... Jarraitzen dugu eta jarraitzeko asmotan gara!

Estibalitz González



**AMAIA HARATEGIA**



**Bertoko Okelak**

Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

**es**  
**egolek**  
electrizitatea  
iluminazioa

M. de Valdespina 14 · ERMUA  
943 17 00 61 · egolek@hotmail.com

Komunitateak

**San Pelayo**

Aholkularitza  
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

arral97.com

**arral**

Telf.: 943 17 60 75  
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Vllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Galkoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

**OUTUMURO**  
Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak  
Aukera handia **TE eta INFUSIOETAN**

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

# Jende asko eta giro ezin hobea Urriko jaietan

Hileko azken aurreko asteburuan ospatu dira Mallabian Urriko jaiak. Herriko bizilagunak ez ezik, jende ugari hurbildu da hiru egunetan zehar prestatutako ekintza desberdinetan parte hartzera. Haurrentzako futbito eta pilota partidetan izan diren gaztetxoak, elegante gauaren harrera ezin hobea edo kontzertuetan bildutako jendetza izan dira honen adibide garbia.



## ESKERRAK IBAIA ETA IGONERI

Ibaia Azagirreri eta Igone Amestiri gure eskerrik zintzoenak eman gura dizkiegu. Arrazoia: 2015eko urrian lau urte ondoren Drogeteniturrri aldizkarixa lagatzeko bidia hartu dabilako.

Mallabiko atala bizirik mantendu ahal izan dabe 2011tik. Hainbat albiste erreportaje, kronika ta bestelako testuak idatzi dozkuez sasoi honetan, Mallabiko hango ta hamenguak bertan argitaratuz. Erreto barrixak urten jatzuez, ta honekin batera aldizkarixakin ezin jarraitu. Hamendik aurrera Paul Bustindui gaztiak hartzen dau zuen lekukua, zuek bizirik mantendu dozuen Mallabiko aldizkarikougarra itzaltzen utzi barik.

Drogeteniturrriko erredakzio taldetik eskerrak eman nahi dizkizuegu lehen egunetik proiektu honi emon dotzazuen danagaitxik. Guretzako pozgarrixa izan da hainbeste urtetan zuek hemen izatia.

Nahi dozuenerako eukingo dozue ate hau zabalik, Drogeteniturrri beti izango baita zuen etxia.

Eskerrak emandako guztiagatik Ibaia ta Igone  
Eskerrak bihotzez.



IZASKUN TXURRUKA



Goienkale 9 Bajo  
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com  
peluqueriaizaskun.wordpress.com

oh la lá!

EMAKUMEENTZAKO MODA



Goienkale behea, z/g  
48260 ERMUA (Bizkaia)  
Telefonoa: 943 53 57 48  
Mugikorra: 649 55 99 09  
ohlalaermua@gmail.com



## MALLABIKO BERTSOLARI GAZTEEN I. TXAPELKETA

Gazte Taldeak antolatutako Bertsolari Gazteen I. Txapelketa ospatuko da azaro eta abendu bitartean, hiru bertso afariz osaturiko lehia. Datorren hilaren 6 eta 20an izango dira lehen kanporaketak. Finalurreko hauetan lau partaide izango dira ekitaldi bakoitzean, eta bertako bi hoberenak, Herrikoko soziedadean, abenduaren 4an gaueko 21:30etan egingo den final nagusirako lortuko dute gonbita. Finalurrekoetan kanporatutako lau bertsolariak arratsaldeko 19:00 etatik ariko dira trikipo-teoan finalaren egunean. Lehenengo afaria datorren hilaren 6an Trabaku Goiko tabernan egingo da gaueko 21:30etan.

Gipuzkorrak izango dira bertan parte hartuko duten lau gazteak. Unai Mendizabal zizurkildarra, Eli Pagola hernaniarra, Endika Igartzabal gabiriarra eta Aitor Salegi zestoarra. Bigarren ekitaldia azaroaren 20an izango da Trabaku Behekoan 21:30etan. Bertan beste hiru bertsolari giputzez gain bizkaitar bat ere egongo dira. Aratz "Potto" Igartzabal Gabiritik, Ane Labaka Lasarte-Oriatik, Maider Arregi Oñatitik eta azkenik Eneko Arrate Markina-Xemeindik. Hiru bertso afarietako txartelek 20 euroko prezioa izango dute eta ekitaldi bakoitza baino hiru egun lehenago erosi beharko dira, lehenago agortu izan ez badira. Herriko, Bastidan, Trabaku Goiko tabernan eta Trabaku Behekoan egongo dira salgai.

Antolatzailea: Gazte Taldea

## Mallabiko Bertsolari Gazteen I. Txapelketa

Bi kanporaketa izango dira 8 bertsolariekin eta saio bakoitzeko bi onenekin finala izango da abenduaren 4an.



### Lehen bertso afaria

Tokia: Trabaku goikoa  
Eguna: Azaroak 6  
Ordua: 21:30etan  
Prezioa: 20€  
Bertsolariak



Unai Mendizabal (Zizurkil)



Eli Pagola (Hernani)



Endika Igartzabal (Gabiñ)



Aitor Salegi (Zestoa)



### Bigarren bertso afaria

Tokia: Trabaku behekoa  
Eguna: Azaroak 20  
Ordua: 21:30etan  
Prezioa: 20€  
Bertsolariak



Eneko Arrate (Markina-Xemein)



Aratz Igartzabal (Gabiñ)



Ane Labaka (Lasarte-Oria)



Maider Arregi (Oñati)

Bi saioetako lehenabizikoek abestuko dute finalean.



### Finala

Tokia: Herrikoko soziedadea  
Eguna: Abenduak 4  
Ordua: 21:30ak  
Prezioa: 20€

Finalera sailkatu ez diren 4 bertsolariekin triki bertso poteoa egingo da, herrian zehar, 19:00etan hasita.

## SALSA IKASTAROAK MALLABIAN

Urriko, azaroko eta abendu astearte arratsaldeetan 20:15etik 21:30etara eskolako gimnasio aretoan salsa dantza ikastaroak eskainiko dira gaztelanieraz, Nahikari emakume elkar-teak antolatuta. Elkarteko bazkideentzat 15?ko tarifa izango dute, gainerakoek 25?koa. Oraindik astia dago bertan apuntatzeko. Izen ematea Udal Liburutegian egin ahal izango da, bertara hurbilduz, 943176691 zenbakian edo kulturetxea@mallabia.eu posta elektronikoin.

## AUTOESTIMATAILERRA EMAKUMEENTZAT

Berdinbidean Ekitzen plana barne, Mallabian emakumeen autoestimaren inguruko lau saio egingo dira, Miriam Ocio psikologoaren partaidetzarekin. Urriaren 28tik hasi eta azaroaren 18rarte bitarteko lau asteazkenetan izango dira tailerrak Kontzejuzar aretoan 14:30etatik 16:00etara. Doako kurtso honetarako izen ematea Kultur Etxean edo 943176691 telefonora deituta egin daiteke. Kurtso antolakuntzaren arduradunak Berdintasun Saila eta Nahikari Mallabiko Emakume Taldea dira.

Paul Bustindui

**ANIMA ZAITEZ!!!!!!**

**SALSA DANTZA IKASTAROA**

**CURSOS DE BAILE SALSA - RUEDA**

Kurtsuaren hasiera: **URRIAK 5**

Ordutegia: **ASTEARTEETAN**  
20:15tik-21:30etara.

Nun: Eskoletako gimnasioan

Comienzo del curso: **5 OCTUBRE**

Horario: **Los Martes, de 20:15 a 21:30**

Donde: En el gimnasio de la escuela

Kultur etxean apuntatu: 943 176691 / kulturetxea@mallabia.eu  
Interesados: Apuntarse 943 176691 / kulturetxea@mallabia.eu

**Proba-Leku**

*Neopaindegia - Estetika*

Probaleku 3, 1A

**Tel. 943 17 05 42**

**SEHIGA**

PROTECCION LABORAL  
"LAN BABESERAKO  
ORDURA"

Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454  
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

**TOLDOS Y PERSIANAS ORBE**

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURITASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2  
Tel. 943 17 66 34  
Tel. mugikorra 630 01 13 41  
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1  
Tel. 943 17 98 60  
48260 ERMUA (Bizkaia)

# Basarrixa Ermuan

Etxia etxiaren gaiñian, asfaltoa eta porlana, aldaparia... gatxa eixen jaku besterik ezagutu ez dogun ermuarroi horrek lekuok nekarizari lotuta imaginatzia, lur eta bedar hutsezko landa edo arbolak eta zereal horiko solo. Siñeztezinak San Pelaixoko lautada osua garitza bat zala erakusten doskun antxiñako erretratua eta baserri batzutan urte guztirako ogixantzako lain urun hartzen zala esaten doskuezen testigantzak. Etxeko sagarrak, konpota edo sardautarako; udegunian basoko intxaur, gaztain eta hur; norberan ortuko artua, taluak eitxeko; baba gorrixak, etxeko txarrixaren odoloste eta urdaixari laguntzeko; arrautzak, beti eguneko; esnia be, ez hurri-

ñeko; orixazak eta intsauralsia, Gabonetarako eta gaztaiñak, Gaztaiñarrerako. Etxeko, sasoian sasoiko, fresko, botika bako eta ekolojiko. Label izendapeneko! 13 basarri kale-kalian eta beste horrenbeste mendirago; etxe bueltan ortutxua, sagastixak eta keixa-arbolak herritxik kanpora. Erdikokalen zihar oillua bere txita aldria atzian dabela eta Kaltxango inguruan txarri morroskua hazten San Martinetarako... Ikaragarri aldatu jaku herrixa eta demasian herritaron dieta. Baiña gure aurretikuok gu danok baiña osasun hobiau izan baietz?

Estibalitz González

## Ermuko 27 basarrixak



Kaltxangoko Arrako, 1974an bota aurretik.



Urkogoikoko amama, basarriko ataixan.

Abeletxe  
Aizti  
Antonatxa  
Arrako  
Betiondo  
Elorretabekua  
Elorretagoikua  
Errekalde  
Errotabarri  
Espilla  
Infreñu  
Joxio  
Karabixa  
Motxu  
Ongarai  
Orozko  
Otxua  
Santukua  
Sinko  
Tellerixa  
Torrekua  
Torreta  
Trake  
Txantxikua  
Ureta  
Urkobekua  
Urkogoikua



Txita eta diluekin oigatam botikako Mari Fran Olañeta.



**ZUZENBIDE  
KONTUAK**

Lege eta  
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina

Tel: 846080080

Mugikorra: 688885435

zuzenbidekontuak@gmail.com

**J. LUCAS**  
PINTURA EN GENERAL

630 22 51 36

Iberikoetan  
espezialistak

*Mayte*

Denda  
berria

VI Centenario 5 · ERMUA  
943 172 412

**ARRIETA CORDEVI**

Etxetresna elektrikoak,  
telebistak,  
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

**MUGA**

**KILOGRAK**

San Pelaio 4A behea  
Telefonoa: 17 64 77  
ERMUA

Ermuan, Euskal Birusa Elkarteak antolatua,

# 26. SAN MARTIN AZOKA



AZAROAREN **14** AN  
LARUNBATA

**11:00**

- Azoka jendearentzat zabalduko da.
- **Kalejira** Musika Eskolako trikitilari eta txistulari gazteekin.
- **Kalejira** Arrasateko gaiteroekin.
- 'KULKI'rekin **umeentzako jolasak** eta **ikastetxeetako postuak** San Martin plazan.
- **Ehun buruko artaldea eta bost astoren jaitiera** Errekaldetik Baldespina.
- **Abere erakusketa** Baldespina parkean.
- **Idi pareak** probalekun.
- **Artisauen postuak** Santiago plazan.
- 'Astobusa' Zubiaurren.
- **Txerri errifak** salgai kalean.

**10:00-12:30**

- **Euskal musika-tresnen erakusketa** Lobianon. Eskolabarrik antolatua.

**11:00-14:00**

- Zenbat pisatzen du aurtengo txerriak? Apustua euro 1.  
Saria: jasotakoaren % 70a. Pisua 14:00etan jakinaraziko da.

**12:00**

- Baserritar **jantzi lehiaketa** plazan. 12:00ak eta 12:30ak bitartean aurkeztu. Saria: bi lagunentzako afari bana.

**12:30**

- **Euskal dantzak** plazan: Txindurri txistu eta dantza taldea.

**13:00**

- **Herri kirolak** Komentukuan: Aratz Mugerza eta Julen Kañamares. Aizkoran, zortzi enbor eta motosierrarekin figurak. Irati Astondoa eta Itsaso Onsalo trontzan eta txingekin.

**13:30**

- **Sari banaketa** oholza gainean: erakusleiko lehiaketa eta azoka guneko sariak.

**15:30**

- **Babajana** Merkatu Plazan: 12 euro (babak, odolostea, txorixa, postrea, gaztaia eta kafea). Tiketak salgai Erdikokale 2-1 edo 943179350.

**18:00**

- **Erromeria 'LUHARTZ'** taldearekin Orbe plazan.
- **Pilota partida** Aritzmeni frontoian.

**19:00**

- **Kalejira** Arrasateko gaiteroekin.

**19:30**

- **Errifa zozketa** Orbe plazan.
- **Larraindantza** Orbe plazan.

ANTOLATZAILEAK:



LAGUNTZAILEAK:



Azaroaren 14an, larunbata:

**Etorri 26. San Martin Azokara!**

Talo eta txorizo, babarrun eta sagardo, baserriko produktu eta animaliz beteko da ez bakarrik Ermuko plaza, herri osoa baizik 26. San Martin Azokan. Euskal Birusak ekintzaz beteriko eguna prestatu du azaroaren 14rako eta bertara hurbiltzeko gonbidapena luzatzen du atsegin handiz. Jai giroaz gozatzeaz gain, hainbat lan dago egiteko eta gurekin bat egin nahi baduzu, deitu 943179350 telefonora edo idatzi mezua euskalbirusa@gmail.com helbidera.

Egin beharrekoak:

- 6.00etan azokaren muntaia.
- 9.00etan plazako txosnaren muntaia.
- 15.00etatik aurrera: dena jaso.

Egunean zehar:

- Errifak saldu.
- Taloen eta tiket postuetan eta txosnan txandak egin.
- Saiheskia erre...

**...animatuko zara?****TALO IKASTAROA**

San Martin Azokako ikurra dira taloak, baina etorkizunean ere jaki goxo hau dastatzea nahi badugu, erreleboa eman behar zaie hortan diharduenei. Horretarako, talo ikastaroa antolatu da Leku Eder tabernan azaroaren 10erako. Zu ere talogile aparta izan zaitezke!

**BABAJANERAKO TIKETAK SALGAI**

Ez da San Martin Azokarik babajanik ez badago eta Euskal Birusak ere herriko bat antolatu du Merkatu Plazan 15:30etan. Tiketak salgai daude oraindik (Erdikokale 2-1ean edo 943179350 telefonoan) eta 12 euroko prezioa daukate. 10 urtetik beherakoentzat doakoa izango da.

**26. SAN MARTIN AZOKA LAGUNTZAILEAK GARA!**

HANIGANS, LURPE, HERGA, DQ, YOMI, TXANTXIKU, TORREKUA, ERTZ, OUTUMURO, TXALAPARTA, SIRIMIRI, SECRETOS, DAKOTA, TITANIC, MOLOKO, SORGIN, INFREÑU, ZUTABE, SAGARRA, CAPEROS, KARIKATO, MIGEL HARATEGIA, SOLOZABAL ESTANKOA, PRO ARRAINDEGIA, TODO A CIEN IDOIA, EGOLEK ELEKTRIZITATEA, SEHIGA, GAUZAK (DENDA ARROSA), ANBOTO BURDINDEGIA. BETA ELEKTRIZITATEA, IRALE HORTZ KLINIKA, URRETA BURDINDENDA, MAITE URDATEGIA, AMAIA HARATEGIA, SAGARDUI POLTSAK eta BAUL DE NATALIA.



Probaleku 4 · Ermua · 943 946 810

Zure  
publizitatea:**DROGETEN**  
DROGETEN  
DROGETEN

943 179350

688 632876

drogeten@gmail.com

aldizkarian

**DESCUBRE-TE**Teak, kafeak, txokolateak,  
eztia... eta baxera bereziak!!

Probaleku 4 Bis · Ermua, Bizkaia  
943 03 15 81 · descubretenew@hotmail.com  
www.teteriadescubre-te.com

**Denetik zure  
maskotarentzat!**

- Maskotenzako janaria
- Katu eta txakurrentzako osagarriak
- Maskoten autogarbiketa
- Ileapaindegia
- Hezitzailea

Tel.: 943 05 44 20  
Bizkaia etorbidea, 11 - eskuma  
48260 ERMUA (Bizkaia)  
bobby.todoparatumascota@gmail.com

# San Martin Kulturala

Azokaz gain, Sanmartinetan euskararekin zerikusia duten hainbat ekintza antolatu ohi dira. Horren barruan aurten ere bertso jaialdia egingo da Ermua Antzokian urriaren 30ean, ostirala, 22:15ean. Bertan Oihana Bartra, Uxue Alberdi, Alaia Martin, Beñat Gaztelumendi, Felipe Zelaieta eta Jon Maia arituko dira bertotan, eta Amaia Agirre izango da gai-jartzailea.

Azaroaren lehen hamabostaldian, Euskal Birusak prestatutako 'Ermuarren soldadutza eta intsumisioa' erakusketak egingo da ikusgai Senen erloju dendaren lokal zaharrean, Probalekun.

Hilaren 6an, ostirala, musika, dantza eta antzerkia uztartzen dituen Kepa Junkera, Sorginak eta Eneko Balerdiren

'Txapeldun' ikuskizuna egingo da Ermua Antzokian 22:15ean.

Euskal zinemagintzan arrakasta handia izaten diharduen 'Amama' filmak ere protagonismoa izango du San Martin Kulturalaren barruan, eta azaroaren 7, 8 eta 9an egongo da ikusgai Ermua Antzokian. Bestetik, 'PAN' pelikula ere euskaraz ikusi ahal izango da hilaren 15ean ohiko ordutegian.

Azaroaren 7an, larunbata, Eneritz Artetxe ipuin kontalaria 'Zenbat gurari' ipuinarekin egongo da Haur Liburutegian 17:30etatik aurrera. 'Arratsaldean kontu kontari' egitasmoren barruan egingo da hori, eta 4 eta 8 urte bitarteko umeentzat dago zuzenduta.

Azaroaren bigarren astelehenean, tradizioak horrela eskatuta, **Gaztañerre eguna** ospatuko da herrian. Horretarako, afari-merienda autogestionatua egingo da Errekena Elkartean 19:30etatik aurrera, eta edariak eta gaztainak doan banatuko dira Kaltxango AEK euskaltegiak eta Ermuko Berbalagun praktika-egitasmoak antolatutako ekimen honetan.



## San Martin Kulturala 2015

# Bertso jaialdia

Ermua Antzokian, urriaren 30ean, 22.15ean



Markos Gimeno Vesgak, bestetik, 'Skizopoziks' errezitaldi hitzperimentala eskainiko du Infreñu tabernan hilaren 11an, asteazkena, 22:00etan. Bertan, Zerojosa proiektuan urteetan zehar egindakoa eszenatoki gainean jarriko du, "idatzitik irakurtzera, aho-korapilotik kantura".

Tantaka Teatroak 'Kreditua' antzezlan eskainiko du azaroaren 27an, ostirala, 22:15ean Ermua Antzokian eta, San Martin Kulturalari amaiera emateko, Paraiso antzerki taldeak 'Ezetz hegan egin' haurrentzako antzerkia eskainiko du toki berean 17:00etatik aurrera.

Ekhi Velar

**BERRITZE LANAK**  
ZURE ERAIKINEAN  
Ez dakizu nondik hasi?  
GURE LANTALDE TEKNIKOAK  
LAGUNDUKO DIZU  
**ZUK ERABAKI**

**SPARA**  
rehabilitazio + sostenibilitate

www.spara.es  
info@spara.es  
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina Zeharkalea, 36, 3º 48260 Ermua -Bizkaia-

**enolimp**  
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23  
E-maila. enolimp@hotmail.com  
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak  
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es

**Ferreteria**  
**ANBOTO**  
Burdindegia

Orain  
**KOTXEKO GILZEN**  
**KOPIAK** ere  
egiten ditugu

943 17 69 76  
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)  
www.ferreteriaanboto.es

**Montis DQ Mouth**

**CITROËN**  
**AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.  
Telefonoa 943 17 04 14

**EKINTZAILEEI  
ZUZENDURIKO  
DIRU-LAGUNTZAK  
DEBEGESAN**

Lanbidek ekintzaileei laguntzeko deialdi berria jarri du abian eta, horretarako, 71.200 euro bideratuko zaie DEBEGESaren bitartez negozio-idea bat izanik ideia hori aztertu eta garatu nahi duten ekintzaileei, zein enpresa edo negozio berri bat ezartzeko bideragarritasun-plana eginda duten ekintzaileei eta proiektu hori abian jartzeko behar diren jarduerak egin nahi dituztenei. Laguntzak eskatzeko epea azaroaren 9an amaituko da eta eskaerak iristen diren ordenaren arabera egingo da proiektuen aukeraketa.

Diru-laguntzen kopuruari dagokionean, enpresa-idea bat garatzeko laguntza, gehienez ere, 1.000 eurokoa izango da sustatzaile bakoitzeko. Enpresa-proiektu berriak martxan jartzeko, berriz, gehienez ere 1.500 euroko laguntza emango zaio sustatzaile bakoitzari. Zenbateko horiek % 15 gehituko dira eskatzaileek 18 urte baino gehiago eta 25 urte baino gutxiago badituzte (eskaera aurkezten duten unean), eta beste % 15 emakumeak badira. Gainera, Debegesak formazio eta trebakuntza programa zehatz bat prestatu du onuradun izango diren ekintzaileei zuzenduta.

**Ermuko Emakumeen Topalekua Indarkeria matxistaren aurkako estatu martxan**

Azaroaren 7an, larunbata, indarkeria matxistaren aurkako mobilizazioa egingo da Madrilén eta Ermuko Emakumeen topalekuak martxa horretan parte hartu eta, era berean, ekimenean parte hartzeko eskaintza luzatzen du. Horrela, Udaleko Berdintasun Alorretik autobusa antolatu da Madrilén egingo den martxa horretara joateko. Bidaia doakoa izango da eta bertara joan nahi duen edonork Emakumeen Topalekuan eman beharko du izena. Autobusa azaroaren 7an goizeko 7etan abiatuko da Madrilera eta egun berean itzuliko da (Ermura gaueko 12etarako bueltatzea da asmoa).

**Emakumeen Mundu Martxa**

BBost urtetik behin antolatzen den ekimena da Emakumeen Mundu Martxa (EMM). 1995ean 'Ogia eta larrosak' izeneko martxa batekin hasi zen mugimendua eta gaur egun izena aldatu badu ere, helburu berarekin jarraitzen du: giza sare feminista sortu eta munduan nagusi den matxismoa ikustaraztea.

Aurtengo edizioan Europa osoa zeharkatu duen ibilbide bat antolatu zen, martxoaren 6an Kurdistanen hasi eta urriaren 17an Lisboan amaitu arte. Irailaren 28an heldu zen martxa Euskal Herrira eta hainbat herri zeharkatu ditu, Ermua tartean delarik.

Urriaren 2an Zubiaurre kalean performance bat egin zen eta 50 emakume beltzez jantzita bildu ziren. Isiltasunean, aurten hildako emakumeen siluetak marraztu zituzten lurrean, haien izenak silueta barruan idatziz. Amaieran, "bizirik eta libre" oihuek isiltasuna apurtu zuten "Ekimen honen bitartez, garrasi egin nahi diogu munduari eta ozen esan indarkeria matxista gizartearen arazo bat dela eta ez kontu isolatu bat", diote Ermuko feministek. "Gorputzak gorpu bihurtuta isilik egin nahi dute deiadar".



San Martin Azokarako abarka eta alpargatak  
Ondo pasal!

**Arinka**  
OINETAKOAK

VI Centenario, 17 - ERMUA  
943 17 41 26

**TRABAKU  
GOIKO**

Taberna eta ostatua  
leku paregabea

943 17 00 09



## Hasi da Berbalagunen kurtso berria

Oraindik izena emateko kanpaina zabalik badago ere, Berbalagunek hasi du kurtso berria. Juanmi Bravo Berbalaguneko koordinatzailea pozik dago ekimenak izan duen erantzunarekin eta bai Mallabin, bai Ermuan, gutxienez iazko taldeak mantendu direla dio. "Mallabin iaz jarri genuen ofizialki martxan ekimen hau eta 15 bat pertsonak eman dute izena aurten. Ermuan, aldiz, iazko taldeak mantendu dira, bermatrikulazioa mantendu delarik. Beraz, 80 bat pertsona ari dira gaur egun". Zifra horiek, hala ere, handitu egin daitezke, Bravok dioen bezala, kurtsoan zehar jende berria apuntatzea normala delako.

Mallabiko Berbalagun ekimena itinerantea dela dio Juanmi Bravok. Hau da, ordu eta erdiz egiten da "eta nahiko berezia da. Gurasoak umeekin etortzen dira tabernaz taberna ostiraletan 18:30ean Jubiletxean hasita, nahiz eta Gurasolagun oraindik ez den hasi, eta horrela praktikatzen dute euskara". Mallabin, helburua, goizez taldea sortzea da.

Berbalagun euskara praktikatzeko proiektua da, ez da berez euskara zerotik ikasteko ekimena. "Ikasten da, noski, praktikarekin ikasten delako, baina hizkuntzaren oinarriko kontzeptuak jakin behar dira", dio Bravok.

Euskara praktikatzeko topaketez gain, hainbat ekintza ere antolatzen ditu Berbalagunek. Horrela, azaroan Ermuko KZ Gunean 8 orduko ikastaroa egingo da sare sozialen kudeaketaren gainean (Facebook eta Twitter). Orain arte beti gaztelaraz eman izan da ikastaroa eta, orain, euskaraz emango da.

Osatu diren taldeek euren egutegia badute ere, orain izena eman nahi duenak ordutegi berria proposatu dezake edo jada zehaztuta dauden taldeetan sartu. Berbalagunen parte hartzea doakoa da eta Ermuan izena eman nahi izanez gero, Euskal Birusaren egoitzara, Udaleko Euskara Sailera edo Ermuko Euskaltegietara jo, edo ermua\_berba@aek.org helbidera mezua bidali daiteke. Mallabiko Berbalagun parte hartu nahi izanez gero, ordea, aurreko helbide berera mezua idatzi edo Kultur Etxetik pasa daiteke.



### Gurasolagun laster

Berbalagun hasi bada ere, oraindik ez zaio hasiera eman Gurasolagun ekimenari. Juanmi Bravok aipatzen duenez, hurrengo asteotan zabalduko da kanpaina Mallabiko eta Ermuko ikastetxeetan.

## BIZKAI KIROLA 2015 SARIA ERMUA MUGI!-RENTZAT

Bizkaiko Euskara eta Kultura Foru sailak Bizkai Kirola 2015 saria eman dio Ermua Mugi!-ri herrian kirolaren alde egiten duen lana goraiatuz. Jarduera fisikorako eta kirolerako pertsonalizatutako doako orientazio zerbitzua da Ermua Mugi!. Bere helburua da, Ermuko herritarrak bizitza estilo osasungarriak har ditzaten informazioa ematea, hezitzea eta aholkatzea, ohiko jarduera fisikoaren eta elikadura-ohitura osasungarrien bidez. Gainera, Ermuko Osakidetzako Lehen Mailako Medikuntzako Zerbitzuarekin sarean lan egiten du Ermua Mugi!-k. Horren bidez, Medikuntza-zerbitzuan jarduera fisikoa burutzea preskribitzen zaien erabiltzaileak bertara zuzentzea ahalbidetzen da.

**Caperos**

Pintxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitarkeoak  
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

**Egaña**

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN  
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

**TXALAPARTA ABERNA**

Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGYAK 943 030 299**

**MT Heapaindegia**

MT Heapaindegia  
C/ Marqués de valdespina nº 8 bajo  
48260 Ermua (Bizkaia)  
tlf. 943170474  
Móvil. 688819336

Silvia Gastón Izaquirre  
facebook: <https://www.facebook.com/leapaindegiamtpehueraia>

# IANIRE DAIRA

- **Zein momentutan erabakitzen duzu 'Gu ta gutarrak' programan parte hartzea?**

Otsaila partean Facebook birtartez nirekin kontaktuan jarri ziren programakoak, baina ni lanean nongoen eta ezin nuen parte hartu. Baina 'Txurru'-ren koadrilakoa naiz eta uda aldean komentatu zidan ea zergatik ez nintzen animatzen programan izena ematen... bada konbentzitu ninduen!

- **Nolako izan zen kastinga?**

Erridikulua (barreak)! Niri buruzko galderak egin zizkidaten, dantza egin nuen, abestu, 'Txurru'-ri mezua bidaltzeko esan zidaten... denetarik!

- **Nola funtzionatzen du saioak?**

Bi asteburutik behin Oriora joaten gara saioa grabatzera eta hor grabatutakoak bi astetan zehar emititzen dira. Platoan grabatutakoa, besteetik, ostegun eta ostiral goizean egiten dugu.

- **Zein da saioaren helburua?**

Ahalik eta koadrila jatorrena bilatzea da. Horretarako probak gainditzen ditugu, beste taldekoak izorratzen ditugu... azkenean kontua da jendea muturrera eramatea, horiek nola erantzungo duten ikusteko.

- **Irabaziz gero, badago sariarik?**

Talde irabazleko sei kideek elkarrekin bidaia irabaziko dute. Horrez gain, horietariko batek, lehenak, 500 euroko saria irabaziko du.



**ETB1 en astelehenetik ostegunera 21:20ean telebistan ikusi dezakegu Ianire Daaira 'Gu ta gutarrak' saioan. Euskal Herriko koadrila jatorrena topatzen duen programako kidea da 24 urteko ermuarra eta pozik dago bizitzen diharduen esperientziarekin. Irakaslea ofizioz, telebista munduan afizioz, momentua alaitasunez bizi du.**

- **Irabaztea duzu helburu?**

Ez, saria ez da helburua niretzat, esperientzia bizitzea baizik.

- **Nolako dihardu izaten esperientziak?**

Kanpotik ezberdin ikusten da eta ni izan naiz programa kritikatu duen lehena. Barruan bizi dena oso muturrekoa da. Egun batean oso goian egon zaitezke eta hurrengoan ia lurpean. Bestetik, ikusleek, umeez bereziki, oso ondo hartzen naute kalean nabiltzean eta hori izugarria da!

- **Badaukazu taldekide kuttunik?**

Josu, Eñaut eta Ainhoarekin oso ondo moldatzen naiz, eta Lain izugarria da (eta berarekin juergan irtetea are gehiago!).

- **Eta hain begikoa ez duzun norbait badago?**

Gorka, Brad Pitten itxura duen mutila. Protagonismoa bilatzen duela ikusten dut eta horrek amorrua ematen dit.

- **Nola ikusten duzu zure burua telebistan?**

Pentsatzen nuena baino hobeto, baina lotsa ematen dit nire burua telebistan ikusteak. Orion edo platoan nagoenean kamerak ahaztu egiten ditut,

edo ohitu egiten naiz behintzat, baina gero grabatutakoa ikustean... ostras!

- **Gustatzen zaizu telebista mundua?**

Bai, baina ez nuen pentsatzen horrelakoa zenik.

- **Zu irakaslea zara?**

Bai, Lehen Hezkuntzako magisteritza ikasi eta gero musika alorrean espezializatu nintzen.

- **Zein musika mota entzuten duzu?**

Oso rockzalea naiz: Extremoduro, Fito y los Fitipaldis... Euskal musika ere asko gustatzen zait: Gatibu, Esne Beltza... Baina tabernetara noanean edo zer gauza dut gustuko; eta dantzagarria bada, hobeto!

- **Biziorik bai?**

Ez, ez daukat.

- **Bizitzako momentu onena?**

Nire anaia jaio zenean. 10 urte nituen eta jada ez nuen espero nebarik edukitzea.

- **Kolore bat?**

Berdea.

- **Idolorik badaukazu?**

Bai, Robe Extremoduroko abeslaria eta Tokero futbolaria.

- **Bidaia bat?**

New Yorkera egin nuena.

- **Akatsik badaukazu?**

Nahiko desordenatua naiz, agintzea izugarri gustatzen zait eta askotan ez daukat filtrorik.

- **Zer aldatuko zenuke Ermuan?**

Jaietan faltan botatzen dut euskal musika talde gehiago etortzea. Euskal kultura gehiago bultzatu behar da.

Ekhi Velar

**Pub Dakota**



Probaleku, z/g Ermua (Bizkaia)  
dakotaermua@hotmail.com

**KRABI**  
Ileapaindegia  
Estetika



Tel: 943 03 17 56      Diputazio, 5      ERMUA



# Durangaldera irteera

Urtero bezala, Anaitasuna Ikastolako 4. mailako ikasleak, lehenengo gaierekin lotuta, gure eskualdea ezagutzera joan ginen.

Urriak 7an, goizeko 9etan autobusa hartu eta Elorrioko Argiñetako nekropolira joan ginen. Bertan dauden hilobiak ikusi, argazki batzuk atera eta apunte batzuk hartu ondoren, bolatokira igo ginen handik ikusten den paisaia zoragarriaz disfrutatzen.

Ondoren, Elorrioko he-

rrira joan ginen. Zumelegi erreka ikusi genuen eta bertako biztanle batek azaldu zigun, Zumelegi Durangoraino doala eta han Ibaizabalekin elkartzen dela. Udaletxea, eliza, frontoi txiki bezain polita eta Elorrioko arkupea ikusi genituen, hamaiketakoa jan eta Durangorantz abiatu ginen autobusez.

Bidean, gaian landutako mendi eta herri batzuk ikusi genituen (Abadiño, Matiena, Anboto...), baita industrialde ugari ere.

Azoka, eliza nagusia, udaletxea eta Santa Anako atea bisitatu genituen Durangon. Oso ondo pasatu genuen, batez ere azokan jolasteko momentutxo bat izan genuelako.

Azkenik, gose izugarriarekin guztiok, Garaira joan ginen. Euririk ez zuenez egiten, frontoi inguruan bazkaldu eta lagunekin jolasteko aukera izan genuen.

Egun zoragarria izan zen! Horrelako gehiago egin beharko genituzke!



## Ikastolako 5. mailako ikasleak Debako hondartza eta inguruak aztertzen



Urriaren 9an, urtero bezala, Ermuko eskola guztietako 5 eta 6. mailako ikasleak trenaz Debara joan ginen, gutxi gora behera 200 bat ikasle. AZTERKOSTA proiektuarekin lotutako ekintza honetan, Debako kostaldea aztertu genuen.

Ikastalde bakoitzak hondartzako zonalde batean kokatu

zen eta esperimentu batzuen bidez uraren kalitatea aztertu genuen: uraren tenperatura, oxigenoa, PHa, nitrato eta fosfato mailak... Esperimentu horien emaitzak ikusirik, esan dezakegu uraren kalitatea ona zela. Hala ere, hondartzan zaborra zegoen eta ikasleek zabor poltsak bete beteta era-

man zituzten zabor ontzietara.

Honetaz gain, eguraldi bikaina egin zigun hondartzan ibiltzeko, zoritxarrez olatu biziak zeuden eta harkaitzetatik ezin izan ginen ibili. Hala ere, landare batzuk bildu genituen eta itsas animalien bat ikusteko aukera ere izan genuen.

ANAITASUNA IKASTOLAKOEK IDATZITAKO ALBISTEAK

Zure publizitatea:

**drogeteniturri**  
**aldizkarian**

943 179350 / 688 632876  
drogeten@gmail.com

**Enter**  
INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea  
Tel. 943 17 90 37  
e-maila: enter-i@arrakis.es

hamburguesería  
**TITANIC**



*Pintxo dastaketa*  
*poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

**GINEKOLOGA**  
**M<sup>a</sup> Jose Ruiz de Porres dk.**

- Bular-azterketa
- Minbizi miaketa prebentiboa
- Zitologia
- Bagina eta abdomen ekografia
- Mamografiak
- Bular-ekografia
- Nerabeei atentzioa
- Menopausiari atentzioa
- Densitometriak
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrazepzioa

**PARTIKULAR ETA ASEGURU-ETXEAK**

IMQ, Lagun Aro, ASISA, AEGON,  
Avant-Salud, ASEFA, DKV-Previsora,  
Previsora Bilbaina, COSALUD, HNA

**RADIOLOGIA MADINA**  
Toribio Etxebarria, 4-1 ezk. 20600 EIBAR

(2 de Mayo kalea zena) Untzaga Plazaren, Ego-Gaineko autobus geltokiaren eta Corte Inglesaren alboan  
Telefonoa: 943 20 28 57

# Hasierak

**H**asierak gustatzen zaizkit, aukera guztiak posible diren une horiek. Egunaren hasiera, adibidez. Gazteagoa nintzenean goizak gorrotatzen nituen, arratsaldeko sei t´erdiak arte eguna ez zen niretzat hasten. Ordu horretan lagunekin gelditu eta eguna hasten zen. Orain, aldiz, goizak gustatzen zaizkit, zerbaiten hasiera suposatzen dutelako, ikasturte hasierako koaderno baten usaina dutelako, eguna okertzen dizuten deabrutxoak oraindik lo daudela ematen duelako.

Liburu baten hasiera gustatzen zait, adibidez, oraindik dena delako posible mundu berri baterako sarbide horretan. Edozer gertatu daiteke une horretatik aurrera. Lasterketa baten hasiera ere gustukoa dut, denok baikara berdinak une horretan.

Baina hasieren ondoren egunari kolorea emango dio-

ten gertakizunak datoz, eta batzuetan itxaropenaren kolore berdea dute, beste batzuetan, aldiz, etsipenaren eta amorraren kolore beltza. Horregatik, egun askotan hasierara bueltatzeko gogoia izaten dut.

Katalunian liburu berri baten hasieran daude eta nire lagun kataluniarrak ilusioz gainezka daude, nahiz eta indarkeriarik gabe dena posible zela ziotenek debekuka eta mehatxuka aritu etengabe.

Ilusioaren indarra handia da. Ilusioak gora eramaten gaitu, eta geure burua gai ikusten dugu, edozer egiteko indarrez. Ilusioa berotasuna da, barrua erretzen digun zerbait.

Eta pentsatu dut ilusioak arerio asko dituela. Batzuk kanpotik datoz: eguraldi txarrak edota argi gutxiko agintariek gogoak kentzen dizkigute gure asmoak aurrera eramateko. Baina beste are-



*Jabi Vidal*

rio batzuk barruan jaiotzen dira: “zertarako?”, edo “ez naiz gai izango” eta abar.

Hainbeste etsairekin, ilusioa askotan kea bezala desgertzen da airean eta han agertzen dira eszeptizismoa, etsipena, axolagabekeria... Ilusioak hegan egiteko aukera ematen digun modura, beste hauek guztiak lurretik arrastaka garamatzate.

Nire lagun kataluniarrak identifikatuta ditu bere herriaren ilusioaren kanpoko arerioak, horiek baitira argien ikusten direnak. Baina, dioenez, ez dira horiek bel-durgarrienak. Haren iritzi, garrantzitsuena barruko arerioak identifikatzea da.

“ **Ilusioa berotasuna da, barrua erretzen digun zerbait** ”



solozabal  
tabakoak

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33



**URRETA** burdindenda

- \* Etxea
- \* Tresneria
- \* Brikolajea
- \* Enrailak
- \* Giltzak
- \* Sarrailagintza
- \* Kit altzariak

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA



Urriak 31  
Zorionak Maren zure bederatzigarren urtebetetzean! Aiora, aita eta amaren partez.



Urriak 19  
Zorionak Unax etxekoan partez! Eskerrik asko danagatik!



Urriak 31  
Zorionak Lander! Muxu pila etxekoan partez zure lehen urtebetetzean!



Urriak 29  
Zorionak Mikeltxo! Musu handi bat etxeko guztien partez. Ondo pasa zure eguna!



Azaroak 14 eta 26  
Zorionak Uxue eta Libe! Muxu handi bat etxekoan partez! Asko maite zaituztegu!



Azaroak 10  
Zorionak Julene zure 2.urtebetetzean, beti hain alai izango zarelaokan! Amatxo, aitatxo eta Boss!

Hurrengo zenbakirako azken eguna:  
**AZAROAREN 18a**



Azaroak 12 eta 25  
Zorionak Mikel eta Olatz! Oso ondo pasa eta muxu handi bat zuen familiaren partez!

**Pub SCORPIO**



Zubiaurre, 21  
**ERMUA**



optika  
**ITZE**

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK  
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnua. 943 17 46 51



**PUB YOMY**

Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean




**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOA**  
**INPRIMAKETAK KAMISSETATAN**

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

**MALLABIA  
1966****Lapatzako Carmen**

Carmen Gandiaga Ugarte Mallabiko Lapatza baserrian jaio zan 1944ko uztailearen 1ean. Bere gurasoek, Bittor eta Juanitak, alaba bakarra izan zuten. 1981eko martxoaren 22an Lapatzatik Zamorara joan zan, Robledo de Sanabria herrira, bere senar Juan bertakoa zan. Familia guztia joan zan, senar emazte, guraso, eta baita bere alaba Celia ere. Carmen 2014ko otsailaren 22an hil zan 69 urterekin. Argazki hau Etxebarrin aterata dago 1966ko urriaren 22an, Eltzubiko Itziar eta Bittoren ezkontza egunean.

**ERMUA**

Escenas Vascas, Camino del mercado. Ermua

Argazkia atera ostean, postal gisa saltzen ziren eta ohikoak ziren horrelako nekazal ukitutuko irudi kostunbristak. Koloreztatuta iritsi zaigu, argazki zuri-beltza nagusi zen sasoi hartako errealitatea irudikatzeko ezin lagungarriago eta negua behar izan, mendiak zuriz agertzen baitira. Ermuko ze lekutik aterata dagoen erretratua? Ez jakin, eta alper-alperrikoak tejuja botatzen egindako ahalegin guztiak, atzeko arboladi eta etxerik gabeko mendi malkartsuok ez digutelako lorratz larregirik ematen.

**Quetzal**  
[arropa, bitxiak, opariak...]

Goienkale, 9 • 48260 ERMUA | 943170065  
www.quetzalmoda.com [f] [B]

**SAGARDUI**  
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua • 943 170305



**Fruituak, barazkiak, sagardoa, trikitixa, abereak eta, nola ez, babarrunak. 26. San Martin Azoka ate joka dugu eta jendea hasi da egun horretarako planak egiten. Herriko plazak base- rri giroa hartu eta jendeak festa ospatuko du txerriaren inguruan. Jantzi txapela edo zapia buruan, eta ibili Ermuan!**

### Zein da zure plana San Martin Azokari begira?



Aurten ez dakit zer egingo dudan, oraindik ez dakidala-ko lan egin beharko dudan edo ez. Libre banago, festa seguru! Normalean koadri- lan batzen gara, baserrita- rrez jantzi, azokan erosten dugu, txokoan babajana egin... Behin babarrunak pikatu zitzaizkigun eta azo- kan berriak erosi behar izan genituen!

**Olatz Madinabeitia, 45 urte**



San Martin Azokan kalera irten, taloa jan eta errifak saltzen ditut. Ni ez naiz baserritarrez jantzen, baina umeak bai eta asko gustatzen zait. Morokila egiteko irina erosteko apro- betxatzen dut azoka. Asko gustatzen zait!

**Marisabel Garitagoitia**



Elkartean bazkaria egingo dugu, babajana noski. Aurretik, hala ere, azokara joango gara, postuak ikusiko ditugu eta agian zerbait erosi, pote batzuk hartu... koadrila giroan ondo pasatu azken finean! Ni ez naiz baserritarrez jantzen, baina koadrilako batzuk bai.

**David Sánchez, 39 urte**



Elkartean bazkalduko dugu eta hilabete lehenago egin behar izan dugu erreserba, jende lepo egongo dela-ko! Normalean ez daukat azokan produktuak eroste-ko ohiturarik, pixka bat garestiak iruditzen zaizki- dalako, baina batzuetan zerbait gustatzen zait eta erosten dut.

**José Rubio 'Tano', 52 urte**



-Hau giroa hau!

-Bai, Euskal Birusari esker, txo!

**ZINEA**

31tik 2ra  
7tik 9ra  
14etik 16ra  
21tik 23era  
28tik 30era  
Ermua Antzokian.  
Hainbat film eta ordutegi.

**ZINE-KLUBA**

Hilak 5  
Hilak 12  
Hilak 19  
Hilak 26  
Ermua Antzokian.  
Hainbat film.  
20:30ean.

**UMEENTZAKO ZINEA**

Hilak 1  
Hilak 8  
Hilak 15  
Hilak 22  
Hilak 29  
Ermua Antzokian.  
Hainbat film. 17:00etan

**ERAKUSKETAK**

**Hilaren 1etik 29ra:**  
Argazkiak: "2015eko oporrak" lehiaketara aurkeztutako lanak. Lobiano Kultur Gunean.

**MUSIKA**

**Hilak 19:**  
Zezilia Deunaren kalejira. 18etatik.  
**Hilak 21:**  
Blues kontzertua: Julián Maeso Band. 20etan. Lobiano Kultur Gunean. Sarrera: 8€  
**Hilak 22:**  
Zezilia Deunaren diana. 8etan.

**ANTZERKIA**

**Hilak 13:**  
"Al final de la carretera", Ángeles Martín, Raúl Peña, Marina San José eta Manuel Baqueiroekin. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 12€  
**Hilak 27:**  
"Kreditua", Tanttaka Teatroaren eskutik. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€

**UMEENTZAKO EKITALDIAK**

**Hilak 7:**  
Haurrentzako ipuin-kontaketa. 17:30ean. Udal liburutegian.  
**Hilak 28:**  
Haurrentzako antzerkia: "Ezetx hegana egin", Paraiso Antzerkiaren eskutik. 17etan. Ermua Antzokian. Sarrera: 4€

**MUSIKA ETA DANTZA**

**Hilak 6:**  
"Txapeldun", Kepa Junkera, Sorginak eta Eneko Balerdirekin. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€  
**Hilak 20:**  
Zezilia Deunaren Jaialdia, Txindurri taldea eta Alboka Musika Eskolarekin. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 3€

**BESTELAKOAK**

**Hilaren 9:**  
Gaztañerre: kalejira eta herri afaria Erretena elkartearen. 19:30ean.  
**Hilak 14:**  
San Martin azoka: hainbat ekitaldi. 11etatik. Herriko erdialdeko guneeetan.



**Hilaren 16tik 22ra:**  
Andaluziako zentroaren kultur astea: hainbat ekitaldi.  
**Hilak 21:**  
Magostos: gaztainen banaketa musikarekin girotuta. 11etatik. Galiziako Kultur Zentroan.

Patxi López

**TXINDURRI TALDEA**  
Tokian tokiko

**PRO**

- ARRAINDEGIA  
- ITSASKIAK  
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

**ESKAINZA BEREZIA OSTIRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua  
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)  
" 17 24 33 (etxea)  
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59  
ERMUA

**Infreñu Taberna**

Kardenal Orbe plaza  
943 174584  
www.infretaberna.com

**ALBOKA**

**MUSIKA ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

**ONAK** LEIRE MAYORA  
**PODOLOGOA**  
 Erdikokale 1, 1. A  
 48260 Ermua  
 © 943 17 47 44

**Irale**  
 Hertz Klinika - Clínica Dental  
**Leire Irazu Garitaonandia**  
 • Ortodontzia • Aho zirujia  
 • Periodontzia • Implanteak  
 • Odontologia orokorra  
 Zeharkale 8, behea 943 17 71 34  
 www.irale.com

fisioterapia  
 eta osteopatia  
 zentroa  
**aitziber**  
 Aitziber Fernández  
 Telf. 943 17 60 95  
 629 88 70 89  
 Sexto Centenario 13,behea  
 48260 ERMUA (Bizkaia)

**san pelayo**  
 clínica dental hertz klinika  
 Implanteak  
 Ortodontzia  
 Periodontzia  
 Hertz-zuriketa / Estetika dentala  
 Odontologia orokorra  
 Protesiak  
 P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS  
 San Pelayo 5, 1. Olatz Garcia Arregui  
 Ermua (Bizkaia) 943 17 04 04

# OSASUN GIDA

**NEREA IÑIGUEZ**  
**HORTZ KLINIKA**  
 - Aho eta inplante kirurgia  
 - Hortzetako protesiak  
 - Hertz estetika  
 - Ortodontzia  
 - Odontopediatria  
 - Endodontzia eta odontologia kontserbadorea  
 Hertz klinika berri eta handitu dugu  
 San Inazio 4 Tel.: 943 030 512  
 Ermua niklinika@gmail.com

**NATURA**  
 Cristina Garcia Pérez  
 Belar-denda eta dietetika  
 · Elikagai biologikoak  
 · Terapia naturalak  
 · Naturopatarekin kontsultak  
 · Masajeak  
 · Dietistarekin kontsultak  
 · Kosmetika biologikoa  
 Zeharkale 12 behea esk. · ERMUA  
 943176594/naturcriss77@hotmail.com

**Osasun gidan agertu nahi baduzu,  
 deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara  
 edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera**

# JAR ZAITEZ MARTXAN

16 ETA 29 URTE ARTEKO  
GAZTEENTZAKO PROGRAMA

## PONTE EN MARCHA

PROGRAMA DIRIGIDO A JÓVENES  
DE ENTRE 16 Y 29 AÑOS

### ENPRESAK SORTZEA CREACIÓN DE EMPRESAS

#### BANAKAKO AHOLKULARITZA

Asesoramiento  
individualizado

#### DIRULAGUNTZAK 1100€

Ayuda económica  
1100€

#### ENPRESAK SENDOTZEKO LAGUNTZA

Apoyo en la  
consolidación

LANA BILATZEKO  
COACHING-A  
COACHING PARA LA  
BÚSQUEDA DE EMPLEO

IZEN-EMATEA  
ETA  
INFORMAZIOA  
INSCRIPCIÓN  
E INFORMACIÓN

Ametx Erakunde Autonomoa (Amorebieta-Etxano)  
T. 946 300 650 / gazteria@ametx.net

Behargintza (Durangaldea)  
T. 946 232 522 / behargintza.mdurango@bizkaia.org

Fundación Izarra Fundazioa (Ermua)  
T. 943 177 159 / proyectos@fundacionizarra.eu

100 bizkaita